

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Felipe Martitegi Iturrioz

*Muxika,
Bizkaia
(1919-2015)*

Aurkibidea



Biografia



1919ko ekainaren 6an jaio zen Gorozikako (gaur egun Muxika) Egiartegoikoa baserrian eta bertan bizi izan da beti. Aita bertakoa zuen eta ama arratiarra, Dimako San Kristobal auzokoa. Aita gizon ikasia zen, Lizarrako ikastetxean ibilitakoa: politikan murgildua, komiteko jueza, eta udaletxeko kontribuzio-biltzailea; kartzelaratu ostean, heriotza-zigorrera kondenatua izan zen. Kantabria aldera joan zen gaztetatik morroi lanetan. Zazpi urtez egon zen soldadu: lehenengo, "Cuarta división de Navarra"rekin Iruñean, Castellón de la Planan, Ebron, Sagunton, Aranjuezen, Madrilén, Bilbon...; eta, etxera bueltatzerakoan Nafarroa aldera joan zen muga zaintzera Izaban, Auritzen, Elizondon, Beran... Bilbon zegoela, bertako burdin-hesia eraikitzen parte hartu zuen eta Nafarroan zebilela, Iruritan zauritu ostean, sukaldari-laguntzaile bezala hasi zen lanean. Frankismo ostean, lau urtez Muxikako zinegotzia izan zen. Emaztea alboko baserri batekoa zuen, Urrebarrokoa, elizaz Gorozika izan arren, Amorebieta-Etxanoko lurretan dagoena.

Zintak

MUX-023

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2010-07-23
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea

MUX-024

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2010-07-23
- **Iraupena:** 58 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

MUX-025

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2010-07-23
- **Iraupena:** 56 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Gaztetan beti beharrean

- **Erref:** MUX-023/002
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:01:57. **Bukatu:** 00:03:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Gaztetan behar asko egindakoa da. Erromeriara joanez gero, arin erretiratu ez arren, hurrengo egunean goiz altxatzen ziren lanerako.

Transkripzioa

- Ta ba holantxik. Baia gure gazte denporie, gure gazte denporie, ze esango dotsut ba? biher ta biher, ta domeka arratsaldie harrapetan bazan jai, ta astelehenien-edo jaitxue izen ezketiño Gernikera, baia oin ez, oingo moduen ez. Berandutxu etorten bazara, hurrungo goizien goizetik altxe biher. Ta oin lo, gaztie lo eitten dabe oin. Gabaz juergan eitten badeue, egunez lo. Ta "¡vivir y viva la virgen!". Bai, halantxik de-ta.

- Ta lehen biher ta biher.

- Ta lehen biher ta biher. Hau, guk erromerittik, bueno jai bet izen badan urrixen atzena edo holako jai bet, berandutxu etxera etorten giñenien, hurrunguko goizien aittek ariñau altxe ogetik ta biherrera.

- Baserriko biherratan.

- Baserriko baserrixen. Guk hementxe ataten giñun bizimodue, hementxe baserrixen. Zuen aittittek eta amumak ataa deuen moduen.

2. Neska-lagunari ezin musurik eman

- **Erref:** MUX-023/004
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:04:19. **Bukatu:** 00:07:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Neska-lagunari ezin izaten zitzaion musurik eman, bekatu mortala zen-eta; musua luzea izaten bazen, ostera, barkaezina. Gaur egunekoa ere larregikoa dela dio Felipek. Ibarruriko don Juan zen Gorozikako abadea, eta 15 urterekin etxean egon behar izaten zuten. Emaztea eskola garaitik gustatzen zitzaion.

Transkripzioa

- Ta biher ta biher ta besterik ez. Ba erromerixera joaten gintzezanien, ta nobixie ta ba nobixieri be mosurik emon eziñik ze pekatu mortala, ta luzie izen ezketiño, parkatu ez itteko modukoa. Ta inpernuko billurraz, ba mosurik emon barik egon biher. Ta oin, oin larrei, ezta? oin larreixen. Egixe da ala ez da? Oin larreixen, oin larreixen. Ta holantxik da mundue. Ta ondo eitten dozue ganera, barriz, ze gaztetan disfrute /bide/ biher da. Ze guri pase jaku gazte denporan, ba hamabost urte ta abadiiek dotriñera, don Juan eta don Pedro horrek Iburrikoak izen zien, ta don Juan egon zan zerien, Goroziken, ta dotriñera, kantak ikesi dotriñekoak ta illuntzetxuen esan: "hala, oin arin-arin etxera, ze kanpaie jo orduko etxien egon /bizue/ biher dozue e!". Ta ariñeketan etxera hamabost urtegaz. Ta oin zer? oin hamabost urtegaz, bueno, bueno, hor dabiz aidien danak. Bueno holantxik. Ta mundue zelan kanbixeten dan bakizu? holantxik kanbixeten da mundue.

- Ta orduen zer, nobixieri ez mosutxurik emon ez ezebez?

- Pekatu mortala. Ta luzie izen ezketiño, parkaziñorik bez.

- Baia iñok ikusten ez banien-ta, illunetan-eta egoten ziñenien etxerako bidien-eta?

- Ez, illunetan egoten zanien bez, ezin emon mosurik.

- Gero ez konteu abadiari.

- Bardin-bardin ikusten deuela Jainkoak eta, illunetan izenda be. Zer ba, zer ba? ta holantxik, holantxik.

- Nobixieri noz /emontsazun/ emon zotsazun lelengo mosue ba zuk?

- Ba ezkontzeko egunetan, ezkontzeko egunetan lelengo mosue. Bittu zemat, ta ibil nitten ba eskolatik, eskolatik euki neuen bijileute, eskolatik bai, eskolatik. Eskolara arkalegaz joaten gintzezan, harek Zorrontzakoak zien, baia Gorozikera elizaz, ta eskolaz Gorozikera etorten zien. Ta eskolatik ein zeaz ta arkalegaz ibilitte hamen pasoan dana, elizara ta eskolara ta, danien pasoan ibilitte ba handixik. Gero ba hogeta sei urte euki zittun andriek eta nik hogeta zortzi urte ezkondu nitzenien. Ba guk arkalegaz eskolatik [...].

3. Bere aita politikan eta herrigintzan ibilitakoa

- **Erref:** MUX-023/005
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:07:24. **Bukatu:** 00:10:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bere aita gizon ikasia zen, Lizarrako ikastetxean ibilitakoa: politikan murgildua,

komiteko jueza, eta udaletxeko kontribuzio-biltzailea; kartzelaratu ostean, heriotza-zigorra kondenatua izan zen.

4. Kantabriara morroi

- **Erref:** MUX-023/006
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:10:28. **Bukatu:** 00:11:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Kantabriara joan zen morroi lanetan arrebarekin batera, Aparecidara eta Ampuerora.

5. Dokumentatu barik zegoelako kartzelara

- **Erref:** MUX-023/007
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:11:50. **Bukatu:** 00:13:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Kantabriako Ampuero herrian morroi lanetan zebilela, milizianoek dokumentuak eskatu zizkieten, baina 16 urte zituen ez zuen dokumenturik. Hori dela-eta, Santoñako kartzelara eraman zuten. Santanderreko Sardineroan egon zen Eusko Jaurlaritzako egoitza eta bertara joan zen dokumentu bila.</p>

Transkripzioa

- Etor zien milizianuek eta: "aber, dokumentuek!". Dokumentuek ta dokumentuek beti "hamasei urte" esaten netsien, baia hamazazpi ya eitteko edo holan egon nitzen, Ampueroan egon gintzezanien, ta: "aber dokumentue", ta ez dekotela dokumenturik, eta ez noala zertuten. Ta "bueno pues, a la carcel!", Santoñara. Hartu behixekaz nauen lekuen kortan ta Santoñara, kartzelara. Santoñan be nik haixe, eurrera segidu ta gero Santoñatik zertun Gobierno Vasco egon zan Madrilen, edo Sardiñeron, ba Santanderren Gobierno Vasco, ta joan nitzen Gobierno Vascorea Santanderrera, ta ataa gendun dokumentaziñoa Gobierno Vascon. Esan ban baze: "ez solte hau eskuetatik" /esasten/ esan osten [...], ta [...] bakotzien eskatzen otsien dokumentaziñoa, ta dokumentaziñoa erakutsi ta horrek danak, ta erakutsi ta: "pasa, pasa, pasa, pasa, pasa". ta apur bet lagunak eindde eukin geñuzen, bai neska ta bai mutil, koadrillie juergan ibiltzen gintzezan-ta. Ta lagunak danak euki nittun estaziñoan itxeroten, Sardiñeratik etorritte, estaziñoan itxeroten, upilako rezibimientue /eistien/ ein eustien ta bueno horretara bagauz.

6. Kantabrietik Bilbora

- **Erref:** MUX-023/008

- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:13:26. **Bukatu:** 00:15:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Kantabrian morroi lanetan zebilela, Aparecidan, mediku baten etxean, egon zen. Nazionalak sartu zirenean, mediku hori alkate jarri zen. Orduan, etxera bueltatu ziren, Bilboko bidea erraztu baitzieten. Gorozikako batek Bilbon zuen taberna eta harengana joan ziren.

7. Ezpata-dantzan "Gora ta gora Euzkadi" abestearren kuartelera

- **Erref:** MUX-023/009
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:15:25. **Bukatu:** 00:19:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Bilbon zegoela, karneta bertan utzita, domeka batean Zugastietako erromeriara joan zen. "Txikito" aritzen zen ezpata-dantza erakusten jendearekin "Gora ta gora Euzkadi" abesten. Baina, egun hartan, "Txikito" uhalaria (korreaje) bikoitzarekin eta bi pistolarekin ikusi zuen. Hurrengo egunean, Gernikako Guardia Zibilen kuartelera joateko agindu zion "Gora ta gora Euzkadi" abestearren, berak irakatsia izan arren.

Transkripzioa

- Ba bertan, bertan, bertan itzi giñun karneta bertan itzi naben, ta etor nitzen neu zapatu baten. Etorri nitten ta domekan joan nitten erromerixera, Zugastara, Zugastan eitten zan erromerixe, baia Gerniketika eta etorten zan Zugastara jentie, Zorrontzatik eta Gerniketika bueno holantxik jentie, hor erromerixe terriblie zan. Ta etorri gara horra, joan naz horra ta "Txikito" esaten otsiena, hemeko bat "Txikito" ibiltzen jakun ezpata-jantzari erakusten, "Gora ta gora Euzkadi, trantrantrata" indde, ba ezpata-jantzari erakusten hor, ta korreaje dobliaz ta pistola bi alderdi banatan. Mekauen la mar, ikusten dot ta ikeratu nitten, esan naben baze: "'Gora ta gora Euzkadi' ta oin pistola biaz ta korreaje dobliaz?", ba etor jaten eta esan osten baze: "Ze Felipe?", "ba hamentxe" ta "ba bixer Gernikera joan /bizu/ biher dozu Goarda Zobilletara deklaraziñoak emoten". "Ta oin zer?", "ba 'Gora ta gora Euzkadi' kanteu" /esasten/ esan osten, "'Gora ta gora Euzkadi' kanteu ta" "Heuk erautsi euskuan!", berak erakutsi oskun kantetan-ta, ataa netsen tarjetie tarjetie ataa netsan ta esan netsen baze: "bittu, ez Goarda Zobilletara ez Marra Zobilletara", gehixau niri ez osten txintik be atara. Ta arrebie entereu zen ensegidako, hartun ta kartzelara. Lelengoan harrape baeuen, ta ezebez ein bakoa, ezebez! koitteda bat! baia esne-saltzen ibiltzen gintzezan ta zentralien hor ba abadie hor be hil eben, baia zentralien parte emon zotsiela, hamen behien zentrala dauen lekuen, parte emon zotsiela zerari, milizianueri, ba ha abadie hiltteko ta ha koittedie, esnie eroaten zotsien hareri zentralekoari ta Bilbora saltzen gendun guk orduen esnie. Letxerue izen zan partikularra

bera, baia Bilbon egon zan hemeko Iburriko don Juanen arrebie, ezkontute Manologaz Bilbon, ta harek eroan euen arrebie hara, ta handik, ba euki giñun zera, amistadie handik euki giñun. Ta gero, eroan ebien kartzelara ta atara giñun ha, Jainkoak dakizen moduen atara giñun ha, baia firmantie orduen alkatien andrie izen zan, ta gure ez txarrixek firmeu ez dekela kulperik eta atarateko, firmeu gure ez. Ta bueno, atzenien atta giñun ta aitte difuntue kartzelatik ekarri giñun hiltteko. Gero kontajixeu ein zen, kontajixue, ta ensegideko hil zen. Ta halantxik gure gazte-denporie.

8. Nazionalak Kantabrian sartu zirenekoa

- **Erref:** MUX-023/010
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:19:05. **Bukatu:** 00:21:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Kantabrian morroi zegoela, nazionalak sartu zirenean, Ampuero herriko zubiak apurtu zituzten bideak ebakitzeko. Aparecida herriko korta batean egon ziren. Nahiko esne izaten zuten edateko, behintzat. Ostean, kobazuloan ezkutatu ziren.

9. Gerrara soldadu, "Cuarta división de Navarra"n

- **Erref:** MUX-023/011
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 00:21:08. **Bukatu:** 00:25:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Kantabrian morroi egon ostean, etxera bueltatu eta gerrara joan zen. Bertako lau egon ziren beraien kintan: bi boluntario joan ziren eta beste bi, Felipe bera tartean, ez. Dibisio txarra tokatu zitzaion, "Cuarta divisi&ocute;n de Navarra". Iruñetik, Valentziako Castell&ocute;n de la Planara, Ebrora, Saguntora, Aranjuezera, Madrilera eta Bilbora joan ziren, Iruñeara bueltatu aurretik.</p>

10. Zazpi urte eta zazpi egun soldadu

- **Erref:** MUX-023/012
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:25:04. **Bukatu:** 00:26:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Cuarta Divisi&ocute;n de Navarran ibili ostean gerran, eta etxera bueltatu ostean, berriro bueltatu behar izan zuten. Guztira, zazpi urte

eta zazpi egun egin zituen soldadu. Gorozikatik boluntario joan ziren biak hil egin ziren; derrigortuta joan zirenek, ostera, bizirik iraun zuten: Jose Urkizak eta berak.</p>

11. 81eko morteroekin frontean

- **Erref:** MUX-023/014
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:26:38. **Bukatu:** 00:28:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>81eko morteroak erabili zituzten frontean. Horrek salbatu zituela dio.</p>

12. Galtzak ere usteldu ezin zapatak kenduta

- **Erref:** MUX-023/015
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:28:23. **Bukatu:** 00:31:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Gerran, harri gainean ere lo egiten zutela dio. Galtzak zapatak kendu barik usteldu egiten zitzaizkien, ez baitzuten aldatzekorik; eta, sarritan, ezta denborarik ere. Ura lortzearren borrokatzen ziren, putzuetako ura ere edaten zuten. Soldaduen trajea eta bi manta zituzten lo egiteko.

13. Ebron nazionalak larregi aurreratu ziren

- **Erref:** MUX-023/016
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:31:38. **Bukatu:** 00:34:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Ebro izan zen fronteko lekurik txarrena. Nazionalak erratu egin ziren: larregi aurreratu zirela dio.

14. Fronteko bizipenak

- **Erref:** MUX-023/017
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:34:30. **Bukatu:** 00:37:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Frontean jateko hotza jaten zuten, mairuek ematen zizkieten latak. Neska-lagunari gutuna idazteko papera ere ematen zieten. Ofizialekin musean aritzen ziren.

15. Gutunak frontetik

- **Erref:** MUX-023/018
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:37:10. **Bukatu:** 00:39:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Frontean zegoela, gutunak idazten zizkion neska-lagunari. Nafar askok ez zekiten idazten ez irakurtzen, eta beraiek laguntzen zieten, askotan ez zirenak ere esanez.

16. Auritzen eta Izaban soldadutzan egindako gaiztakeriak

- **Erref:** MUX-023/020
- **Iraupena:** 0:04:38. **Hasi:** 00:41:36. **Bukatu:** 00:46:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Frontetik etxera bueltatuta, berriro eraman zuten. Nafarroa aldera joan zen muga zaintzera: Izaban, Auritzen, Elizondon, Beran... egon ziren. Alemaniarak egon ziren Frantziako muga orduan, eta pasa ez zitezen egon ziren muga zaintzen. Behin Auritzeko erromeriara joan ziren eta kristonak eta bi egin zituzten: telefonoak ebaki... Izabako kuartelean egon ziren eta bertako neska guztiak ofizialen atzetik zebiltzan. Neska horiek ile-apaindegira joaten ziren eta haiei abesten zieten kanta bat abesten du.</p>

17. Auto-istripu larria soldadutzan

- **Erref:** MUX-023/021
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:46:14. **Bukatu:** 00:49:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutzan zegoela Iruritan auto-istripua izan zuten. Bi hil egin ziren eta

bera luzaroan egon zen Iruñeko ospitale militarrean. Ospitalean Bidaniko (Gipuzkoa) lagun bat egin zuen eta haren arreba zen moja-erizainaren lagun ere egin zen. Bere bitartez ospitaleko sukaldean hasi zen lanean.

18. Gorozikako eta soldadutzako neska-lagunak

- **Erref:** MUX-023/022
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:49:10. **Bukatu:** 00:52:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Soldadutza istripua izan zuenean, bere gurasoak eta betiko neska-laguna bisitan joan zitzaizkion. Iruñean beste lagun bat ere bazuen hango kuadrillakoa zena. Momentuan bi neska egon ziren batera. Iruñean bertan ezagutu zuen Bidaniko moja-erizain baten mutil-laguna Esturo auzoan hil zuten gerran.

19. Trena Zugastietan eta autobusa Autzaganen

- **Erref:** MUX-023/024
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:54:04. **Bukatu:** 00:55:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Soldadutza istripua izan zuenean, etxekoei oso larri zegoela esan zieten eta Autzaganen autobusa hartuta joan ziren haraino gurasoak eta neska-laguna. Bilbo edo Zornotzara joateko Autzaganen hartzen zuten autobusa. Gernika aldera joateko, trena Zugastietan. Oso tren eta autobus gutxi egoten ziren.

20. "Rojillos" euskaraz berba egiten zutenei

- **Erref:** MUX-023/026
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:56:47. **Bukatu:** 00:58:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Soldadutza "rojillos" deitzen zieten euskaraz berba egiten zutenei. Sekula ez zioten utzi euskaraz berba egiteari. Gaztelaniaz ondo konpontzen ziren.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com